

## INFORMAZIO OHARRA: DATUEN TRATAMENDUA - ESPEDIENTE AKADEMIKOAK

### Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Bat etorrita Europako Parlamentuak eta Kontseiluak apirilaren 27an emandako 2016/679 EB Erregelamenduko 12. eta 13. artikuluekin (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko erregelamendua) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, 11. artikuluan zehaztutakoarekin, honen bidez jakinarazi nahi dizut zure datuak UPV/EHUREn erantzukizunpeko fitxategian gordeko direla, eta, era berean, honen berri ere eman nahi dizut:

<b>Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa</b>	
<b>Datu tratamenduaren arduraduna</b>	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
<b>Datu tratamenduaren helburua</b>	Tratamenduaren helburua da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen espediente akademikoen kudeaketa, matrikulatuta zauden ikasketak ofizialetakoa, eta horrez gain, administrazio arloan eta arlo akademikoan kudeaketa horretarako beharrezko diren jarduketak egitea ere, Unibertsitateko Bibliotekako zerbitzuak barne, eta barne hartuta, era berean, ezagutza egiaztatze prozesuak, edozein dela ere prozesuotarako erabilitako bidea (presentziala, urrutikoa edo onlinekoa).
<b>Datu tratamenduaren legitimazioa</b>	Datuen tratamendua beharrezkoa da interes publikoko misioa betetzeko eta UPV/EHUri emandako botere publikoa gauzatzeko, hau da: irakaskuntzaren eta administrazioaren arloko espediente akademikoak kudeatzeko UPV/EHUk goi mailako prestakuntzaren arloan zerbitzu publikoa eman dezan, hain zuzen ere zure matrikulari dagozkion ikasketak eman ditzan. Horregatik guztiagatik, izaera pertsonaleko datuen titular zaren hori behartuta zaude datu horiek ematera.
<b>Datu tratamenduaren hartzaileak</b>	Helburu hauetarako tratatuko diren datuak, eta soilik helburu horretarako, banketxe eta erakunde lankideei laga ahal izango dizkiogu, tasa akademikoak kobratzeko. Era berean, beste unibertsitate batzuei laga ahal izango dizkiegu, espedienteak lekuz aldatzeko; goi mailako hezkuntzaren arloko eskumena daukan Eusko Jaurlaritzako sailari eta ministerioari; Euskal Enplegu Zerbitzuari, eta kanpoko akreditazio agentziei.
<b>Eskubideak</b>	Datuak atzitzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen denez.
<b>Informazio osagarria</b>	<a href="https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/-/tg0005">https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/-/tg0005</a>